

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK: EKOIZLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO, BEZEROAK ERAKARTZEKO ETA UDAL MERKATUAN ZUZENeko KONTSUMOA SUSTATZEKO BONUAK SALTZEKO.**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Udalaren helburua da, kontsumo kanpaina baten bidez, merkataritzaren jarduerari laguntzea Beasaingo azokaren esparruan, postuetan erostea sustatuz eta merkatua mantentzea eta garatzea bultzatuz.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Azokako bonu-programari atxiki ahalko zaizkio Beasaingo astearteko edo larunbateko azokako postuetako pertsona fisiko edo juridikoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Astearteko edo larunbateko azokan parte hartzea (udal zerbitzuek egiaztatuko dute bertaratzea).
2. Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.
3. Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Bonuek 20€-ko balioa izango dute guztira, eta 5€-ko 4 zatitan banatuta egongo dira.

Bonuak 10€-ko kostua izango du eta eskudirutan ordainduko da, baina bere balioa 20€-koa izango da.

4. Eskakerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAO-n argitaratuko dira.

Eskakerak aurkezteko epea eta modua ondorengoak izango da:

-Noiz: 2026ko urtarrilaren 1etik 28ra bitartean

-Modua: Atxikitzeko eskaerak eta aurreko atalean adierazitako dokumentuak, iGunean aurrez aurre edo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke.